

Sexualitatearen koloreak: gazteekin eta gazteentzat eginiko gida

- Leizaolak azaldu du “Foru Aldundiko zeharkako ikuspegia txertatu” dela gidan eta “hezkuntza funtsezko tresna dela gizarte eraldaketarako”
- Olabek “hainbat gazte, gazte elkarte eta eragilek gidaren oinarri den diskurtsoa eratzeko egindako lana” nabarmendu du

Bilbon, 2017ko martxoaren 22an. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Bizkaiko Foru Aldundiak ‘Sexualitatearen Koloreak’ gida aurkeztu dute bi formakuntza saioen bitartez. Lehena, goizean zehar, Bizkaiko Lurralde Historikoan lan egiten duten teknikariei zuzendutako mintegia; eta, bigarrena, arratsaldean gazteei zuzendutako tailerra. Bertan izan da, besteak beste, María Guijarro, Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasunerako zuzendari nagusia.

Euskalduna jauregian egindako agerraldian adierazi dutenez, gidaren helburua “Aniztasuna balorean jartzea” da eta zeharkako bilakatzeko hezkuntzako hainbat esparrutan dauden “baliabideak ezagutzera ematea, teorikoak nahiz praktikoak”. Hauek osatze aldera, LGTBI+ gazte nahiz eragileen behar eta proposamenak bildu dira hainbat elkarrizketa bidez.

Goizean egindako agerraldian, Maitane Leizaolak, Bizkaiko Behatokiaren zuzendariak adierazi du gidan Diputazioaren zeharkako begirada txertatu dela “Gazteria eta Berdintasun politiketan adituak diren teknikarien lankidetzaz izan da horretarako”, gehitu du Leizaolak.

Bestetik, Maialen Olabek, EGK-ko presidentea, ‘Sexualitatearen Koloreak’ gida “EGKren Berdintasun lan-arloaren eta honen Gaur8 lantaldearen isla” dela adierazi du. “Gure helburua emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala aurkeztea da, uneoro LGTBI+ kolektibo gaztearen bazterketa egoera sexismoaren ondorio dela buruan izanda”, nabarmendu du Olabek.

Elkarte eta eragileen diskurtsoa ezinbestekoa

Leizaola eta Olabek gidaren eraketarako hainbat elkarte eta eragilek erakutsitako prestutasuna nabarmendu nahi izan dute. Besteak beste, Aldarte, Bizigay, Gehitu, EHUko LGTB Liga, Errespetuz eta Chrysalis Euskal Herria elkarteak izan dira elkarrizketatuak. “Hobekuntzarako eta onarpenerako norabidea hartua dagoela dirudi, baina oraindik ere egiteko lan asko dago. Baita gazteriaren artean ere”, adierazi du Olabek.

Identifikatutako klabeetan, EGK-ko presidentak “ikasle nahiz irakasleriaren formakuntza, hezkuntza erduetan Aniztasuna zeharkako balore bezala txertatzea eta informazio eta baliabide ulergarriak gazteen esku ezartzea” aipatu ditu. Era berean, hauetatik abiatuz, baliabide



teoriko nahiz praktikoak, hala nola, intereseko hainbat material zein gune ere jaso dira 'Sexualitatearen Koloreak' gidan.

Leizaolak adierazi duen bezala, "gida hau EGK-k BFArekin duen lankidetzaz hitzarmenaren markoan argitalpen bilduma baten lehena da". Bizkaiko Behatokiaren zuzendariak azpimarratu du "gazteek identifikatutako beharrei" erantzuteko asmoz sortutako materialak direla, "euskaraz zein gaztelaniaz argitaratu ditugun errekurtso arin eta praktikoak". Era honetan, gehitu du "Leizaolak, euskarazko materialetan zegoen hutsunea asebetu dugu".